

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 59. zk (otsaila 2025)

herriko denda
IBALUR

Ibalur,
gertukoa, betikoa

▼ Elkarriketa:

Jose Antonio Mendizabal

▼ Arbelaitz, urte berri

junta berri

▼ Mintzalagun

taldea martxa da

R Berreskuratzeko, Eraldaketa
eta Erresilientzia Plana

03	Udaleko berriak
04	Haurreskola
05	Eskola
06	Guraso elkarteak
07	Gazteria
08-09	Hitzar
10-11	Ibalur
12-17	Elkarrizketa: Jose Antonio Mendizabal
18-19	Natura
20	Telegram
21	Motzean: Efrem Nicolau Mussons
22-23	Euskaraldia
24-26	Arbelaitz
27-29	Hemeroteka
30	Liburutegia / Errezeta
31	Euskara
32	Agenda

Sarrerako bertsoak

Doinua:
Ama begira zazu.

Eskola egin

Orain dela bi urte atera ginela. Eskola oraindik dago lehen zeon bezela	Laster hasiko gera gu denok lanean. Ta ez degu egon nahi ia udaletxean.
Trai lara lai...	Trai lara lai...
Oraindik ez digute gure eskola bota. Langileak jun dira Ibizara lota.	Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu. Itsasondoko ikasleak merezi baitegu.
Trai lara lai...	Trai lara lai...
Lanak egiteko ez gaude gu eroso. Ta_ikusten hasi gera piska bat borroso.	Espero dugu azkar eskola ezautzea Izango da polita bertan gu batzea.
Trai lara lai...	Trai lara lai...



Urte honetako lehen ale honetan ba-
ditugu zuen interesekoak izango
diren hainbat kontu eta berri. Ez
pentsa urtea makal bukatu genuenik, eta
2025a ere oparo hasi dugu. Gehiago jakin
nahi? Ekin diezaiozun, bada, irakurketari!

Azken alean aipatu genuen plazan koka-
tuko den denda berriaren inguruko parte
hartze prozesu bat egin zela. Hurrengo
orrietan, dendaren irekierari buruzko al-
bisteak irakurgai izango dugu. Zeinen polita
geratu den denda eta zein gogotsu dauden
Kontxi eta Feli!

Arbelaitz elkarteak junta aldaketa gauza-
tu da eta lehendakari ohia elkarrizketatze-
ko aukera izan dugu. Ba al dakizue zeinez
ari garen? Ea, bada, zer kontatzen digun!
Tere eta Maialen ere gure artean izango
ditugu, puntu saioen inguruan hitz egiten.

Berrikuntza modura, herriko berriak
zabaltzeko orain arte erabiltzen zen What-
sapp aplikazioaren ordez, orain berriak
Telegram kanalaren bitartez zabaltzen
dira. Horrez gain, haurren autonomiaz,
Gaztelekuko dinamikaz, Euskaraldiaz eta
Hitzar-en ingurukoez arituko gara, baita
ohikoak diren euskara atalaz, liburutegiaz,
errezetaz eta agendaz ere.

Beti bezala herriko berriei gozatzea es-
pero dugu; har ezazue tartetxo bat, bada,
eta esku artean duzuen alea disfrutatu!

Ur hornidura sarea

II fasea

.....
Erein laguntzei esker, bukatu da Itsasondoko mendi hegaletan barreiatuta eta orain arte sare publikora Iotu gabe zeuden 37 baserri sakabanatu (eta beste 4 Ordizikoak) edateko urarekin hornitzeko lanen lehen fasea. Lan horien finantziazioan, Eusko Jaurlaritzak, Ur Kontsortzioak eta Itsasondoko Udalak hartu dute parte.
.....

Horretarako, 100m³-ko ur-biltegi berri bat eraiki da, 535 m-ko kotan. Aurrealdean giltza-ganbera bat du, bulkada- eta grabitate bidezko banaketa sistemak gobernatzeko.

Depositu horretara Mendibil baserriaren goialdean, 215 metroko kotan, dagoen biltegitik eraman da ura (Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kudeatzen duen Arriarango presatik herrigunean banatzeko jasotzen den ura, hain zuzen ere). Biltegi hori handitu egin da, eta goiko depositua hornituko duen ponpaketa-multzo baterako gela erantsi zaio. Hornidura horretarako, bi andelen artean 1.388 m-ko luzera eta 320 m-ko igoera duen bulkada-sare bat eraiki da.

Depositu berria eta hoditeria baserrietan hidranteak jartzeko behar izaten diren bolumena eta presioa lortu ahal izateko kalkulatu dira, funtsezkoa baita sute-ahoeak, esku hartzeko ekipa guztiak (mahukak, banaketak, lantzak, etab.) konektatu ondoren, gutxienezko emaria 500 l/m-koa izatea aho bakoitzean.

Hidrantea denbora laburrean ur kantitate handiak hornitzen dituen ekipa bat da. Suhiltzaileek mahuka bertara konektatzea ahalbidetzen du, eta kamioien zisternak betetzen ere laguntzen du. Sute-ahoa eraikineko suteen aurka babesteko instalatutako ur-sarearen parte da.

Jakina da isolatuta eta herrigunetik urruti dauden baserriek suak kiskaltzeko arrisku handia izaten dutela, batez ere ez badituzte suhiltzaileentzako ur hartune egokirik ez dutenean eta suhiltzaileak iritsi aurretik hartu daitezkeen neurriak hartzeko bitartekorik.



"Itsasondoko baserrietan ur-hornidura berria hidrante sarea jartzeko lanak, II fasea: Goierri auzoa" proiektuan planteatutako sare eta azpiegituren diseinua da. Esan bezala, hidranteak jartzeko balioko duen azpiegitura da diseinatu dena.

Proiektuaren helburua da orain arte eta kokapenagatik ura emari eta osasun-berme egokietan eduki ezin zuten abonatuak edateko uraren sarera konektatzea, eta horrez gain, suteen arriskuari aurre egiteko ahalik eta gehien prestatzea.

Goierri auzoan hornitu beharreko 13 baserrien zerrenda hau da:

GOIERRI	Izagirre goikoa
Iraola Etxeberri	Nahikari
Iraola Arresea I	Otdizabal
Ilraola Txiki I	Sarobe I
Iraola Txiki II	Sarobe II
Itsasaga	Sarobe berri
Izagirre behekoa	

Proiektu honen aurrekontua, ur-hornidura berria II. fasea eta hidrante sarea

Lanak esleitzeko lehiaketara hiru enpresa aurkeztu ziren: SASOI ERAIKUNTZAK, EREGI HERRILANAK eta CONSTRUCCIONES GABRIMOL. Lehiaketa SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresak irabazi du eta 554.180€ ko kostua izango dute. Lanak otsaila amaiera aldera hastea espero da, eta 20 aste inguru irautea aurreikusi da. 150.000€ EREIN dirulaguntza bidez ordainduko dira, eta gainontzekoa Ur Kontsortzioaren eta Itsasondoko Udalaren artean.

Haurren autonomia jolas librean, esku hartze egokia

Haurren jolas librean helduen esku hartzea egoki egin dadin, haurren erritmoa eta jolasarekiko interesa hartu beharko genituzke kontuan.

Helduek jakin egin beharko lukete haurrak garapenaren zein fasetan dauden, haurren jolasarekiko ahalmenak zeintzuk diren jakiteko; horrela, helduek errazago asmatuko lukete espazioa eta materiala antolatzen. Beraz, helduen esku hartzea ez da izango haurrekin jolastea, baizik eta hurrei espazioa eta materiala prestatzea, haurrek interesa eduki dezaten jolasean ikaste prozesu bat emateko modu autonomoan. Haurrek interesa dutenean, behin eta berriz errepikatzen dute jolasa, barneratu arte. Haurrak jolasean dauden bitartean helduak behatzen egongo dira. Haurrak aspertzen hasten badira, esan nahi du jolasak eman duela eman behar zuena, eta haurrak prest daudela beste material bat esperimentatzeko.

Bestalde, haurrek, jolasean lasai egoteko, lehenik figura erreferentearekin atxikimendu segurua eraiki behar dute. Atxikimendu segurua ez badute egiten, haurrak alertan egongo dira erreferentearen mugimendu guztiekin eta ezingo dute erabateko atentzioa jarri euren jolasean. Beraz, behin lotura segurua eginda, espazioa antolatzen hasiko gara eta ikusiko dugu haurrak mugimendu aldetik nola dauden: hau da, lurlean etzanda egoten diren, lau oinetan ibiltzen diren edo oinez ibiltzen diren, eskuen eta begien koordinazioa landuta duten. Horren arabera espazioa modu batean edo bestean antolatuko dugu. Hazten doazen heinean, aldatu egingo dugu, haurren beharrak asetzeko; horregatik, gure behaketa eta zeharkako esku hartzea oso garrantzitsuak izango dira.



Lau hilabetetik aurrera haurrak lurlean utz daitezke mantatxo baten gainean, eta inguruan eskuarekin hartzeko moduko materialak utzi, umeek beraiek hartzeko. Handitzen doazen heinean, espazioan mugimenduarekin eta haien interesekin bat doan materiala jar dezakegu, haurrek mugimendu gehiago behar dutelako. Materialarekin ere berdin gertatzen da. Hasiera batean, jostailu bat hartzen dute eskuetan eta behin eta berriz harekin jolasten dute eskuen abilezia landu arte. Ondoren, bi eskuak maneiatzen ikasten dute eta materiala elkarren ondoan jartzen dute, bata bestearen barruan sartu eta ateratzen dute. Ondoren, materialak leku batetik bestera eramaten dituzte, arrastreko jolasak egiten dituzte eta, horrela, joku sinbolikora iritsi arte; orduan, imitazioz, haurrak mundura inkorporatuko dira. Guzti hori haurrek beraien kabuz egingo dute, jolas librean autonomia landuz. Garrantzitsuak izango dira pauso hauek guztiak, bihar-etzi autonomo izateko aurreneko urratsak barneratuta izango dituzte eta.

Tere eta Maialenekin puntuan

Puntua egiten hasi gara
Lehen Hezkuntzako
4., 5. eta 6. mailako ikasleak.

Ostiraletako tailerretan, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoak puntua egiten hasi gara Tere eta Maialenen laguntzarekin. Helburua bakoi-zak buff bat egitea da, baina erronka handia da.

Azaroan hasi ginen proiektu honekin. Ostiral arratsaldetan egiten dugu puntua. Hamar bat saio egin ditugu dagoeneko. Maialen eta Tereren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen proiektua aurrera eramatea.

Galdera hauek prestatu ditugu beraiek gehiago eza-gutzeko:

Noiztik egiten duzue puntua?

Tere: 25 urte nituenetik egiten dut puntua.

Maialen: Txikitan ikasi nuen puntua egiten.

Zein puntu mota ezagutzen dituzue?

T.: Aurrekaldea eta atzekaldea, zortzikoa egiten.

M.: Ez ditut puntu mota asko ezagutzen, baina hari ar-tean aritzeko zaletasun handia dut.

Zer eskaintzen dizue puntuak?

T.: Tarteka egiten dut, eta lasaitasuna eskaintzen dit.

M.: Kakorratzarekin iaioagoa naiz, libre sortzea gusta-tzen zait.



Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza

Olentzero eta Mari Domingi maiteak, urtero bezala, zuen etorrera gogoz itxaroten nago, baina aurten, zerbait eskatu nahi dizuet.

Gaur egun, urtebetetze-tan, Gabonetan eta bestelako ospakizunetan opariz gainezka egiten dut. Opariz betetako etxeek zoriontasunaren eta alaitasunaren sinonimo badirudite ere, opari gehiegik eragin negatiboa izan dezakete nere garapenean:

- Balioen nahasketa: Zoriontasuna gauza materialetan aurkitzen dela sinestera irits naiteke, eta ez harreman, bizipen eta bestelako balioetan.
- Esker ona galtzea: Hainbeste opari jasoz gero, jasotzen dudana baloratzeko gaitasuna galtzen dut.
- Kontsumismoaren normalizazioa: Opariak jasotzeko ohiturak kontsumismoa bultzatzen du. Gauza berrien etengabeko beharra garatu dezaket, eta horrek frustrazioa eta pazientzia eza sortzen dizkit.



- Irudimena murriztea: Jos-tailuek eta opariak jolas tradizionalari eta irudimena-ren garapenari eskaintzen dizkioten denbora eta arreta muga dezakete.
- Antsietatea eta estresa: Aukera gehiegi izateak estresa eta antsietatea sortzen dizkit. Horrenbeste gauza dauzkat ez dakidala zein aukeratu.

Nire garapen osasuntsu eta orekaturako, garrantzitsua da opari kopurua murriztea eta kalitate eta esanahi handiagoko esperientziak eta objektuak eskaintzea. Horrela, nire balioak landuko ditut, esker ona izango dut eta kontsumo arduratsua praktikatuko dut.

Eskerrik asko zuen arretagatik. Besarkada bat!



Gurea erabil dezakezu

Beste hainbat herrietako dinamika jarraituz Itsasondon ere, "Gurea erabil dezakezu" kanpaina martxan da.

Herriko saltoki guztiek bat egin dute ekimenarekin, horrela telefono bat erabiltzeko beharra duten haurrek lasai erabil dezaketelarik bertako telefonoa.

Baina Itsasondo haurren eta gu denon herria izanik, bertako haurrak herritar sentitzen ditugunez, edozein unetan haurren batek telefono dei bat egiteko beharra duela ikusiko bagenu, telefonoa duen orok uztera gonbidatzen zaituztegu. Gure begirada zabalduaz eta komunean lan eginez herritarrek Itsasondo haurrek lasai bizi daitezen herria izan dadin lor dezakegu eta.

Zertarako ekimen hau?

Haurrek telefono mugikor bat izateko beharra ekidite aldera harraminta desberdinak eskeini behar dizkiegu. Geroz eta ikerketa gehiago dau-de telefono mugikorra eta pantailen erabilera atzeratzeko beharraz hitz egiten dutenak eta.

Nola jakin dezakegu zein saltokik egiten duen bat?

Hainbat herrik bat egin duenez ekimenarekin, saltoki guztiek pegatina bat izango dute lehioan jarrita. Horrela haurrek segituan jakin dezakete bertako telefonoa beraien eskura dagoela. Adibidez, Ordizin liburutegikoa, kiroldegikoa, udaltzaingokoa... erabil dezakete.

Gu bezela inguruko herrietan lanketa egiten ari da, pixkanaka informazioa biltzen ari gara eta duguna zuekin partekatzen dugu; etorkizunean ere partekatuko dugu.

Hemendik eskerrak eman nahi diegu herriko saltokiei gure ekimenarekin bat egiteagatik.




Ostiralero

Alaitz eta Nagore hezitzaileen laguntzarekin ekintza interesgarriak egiten dituzte

Hasi dugu 2025.urtea Itsasondoko gaztelekuan! Kurtsoari jarraituz, ekintza ugari egiteko prest ekin diogu urte hasierari. Gazteen asmo, gogo eta beharretara moldatuz sortu genuen irailean ikasturteko plangintza. Hala, jada gauzatu ditugu horietako dexente: zinea palomitekin, sukaldaritza, hainbat txapelketa, bingo musikatua, eta abar.

Urte berria ere ekintza dibertigarri ugarekin osatuko dugu, besteak beste: zeramika tailerra, pirografia, tortilla patata dastaketa, Scape Rooma gaztelekuan...

Itsasondoko hezitzaile eta erabiltzaileek herriko 12-17 urte bitarteko gazte oro gonbidatzen zaituztegu bertaratu eta arratsalde goxo eta dibertigarri bat elkarrekin pasatzera. Maiztaren 29 arte programazio zabal eta anitzaz gozatzeko eskaintza paregabea izango duzue. Gerturatu, animatu, bakarka edo taldean! Nahiago duzuen moduan! Guk ostiralero arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitarte eskuzabal jasoko zaituztegu Itsasondoko Gaztelekuan.



Goiterrigintza, elkarlanean hazten

.....
Lukasaingo proiektua martxan jarri
ondoren, Zaldibian lehen pausoak
ematen hasi gara
.....



Goierrri eskualdea osatzen duten herriak ongi ezagutzen ditugu, eta hasieratik argi izan dugu eskualde mailako lankidetzeta eta interkooperazioa beharrezkoak direla, halako proiektuak benetan eraginkorrak eta iraunkorrak izateko. Horregatik, **Goierrigintza proiektua lantzen hasi gara serio**. Askotan errepikatu dugun modura, Goierriko herri guztiak bateratuko dituen energia komunitatea sortzea dugu helburu, eragile guztien artean lankidetzeta estuan jardunez, baliabideak partekatu eta eskualdearen etorkizun energetikoa modu kolektiboan bermatzeko.

Hitzar kooperatiban eskualde mailara zabaltzeko erabakia aspaldi hartu genuen, eta barne hausnarketaren ondoren, Biziolari elkarlanerako proposamena egin genion. Ordutik hona, elkarrekin ari gara Goierriko herri eta komunitateak indartzeko eredu jasangarri eta solidario bat eraikitze lanean.

Lukasaingo esperientziaren ondoren (*Itsasondo eta Ordiziako herritarrek elkartu dituen proiektua*), ibilbide honi jarraipena eman diogu Zaldibian. Urtarrilaren 15ean, lehen jardunaldia antolatu genuen herri antzokian. 60 lagun ingururen parte hartzearekin, jardunaldi honek Zaldibiako herritarren interesa garbi erakutsi du, eta guretzat ezinbestekoa da horrelako bidelagunekin eskualdeko etorkizun energetiko kolektiboa bermatzea.

Goierriko beste herrietara ere gerturatzen hasi gara, eta, nahiz eta prozesuak erritmo desberdinetan joan, gogo eta ilusioz jarraitzen dugu. Guretzat bidelagun berriekin elkarlanean aritzea da bidea. Uste sendoa dugu elkarlanaren bidez etorkizun oparoago bat eraiki dezakegula, eta Goierrigintzarekin ereiten ari garena biharko uzta bikaina izango dela.

Instituzioen arreta ere piztu dugu

Hitzarren hasieratik izan dugu argi lankidetzeta eta harremanak ezinbestekoak direla proiektua sendotzeko. Gure ibilbidean Biziola, Ernamuina, Udalbiltza eta beste hainbat eragilerekin harremanetan gabiltza. Gipuzkoako komunitate energetikoen lehen topaketara ere gonbidatu gintuzten, duela gutxi. Elkarlanak zabaltzeko aukera hauek proiektuaren ikusgarritasuna handitzen lagundu dute, eta orain, **Gipuzkoako Foru Aldundia ere interesaturik agertu da, gurekin lankidetzan aritzeko**.

Aldundiaren proposamena zehatza izan da: gure instalazioetako monitorizazioa (*Iraolan eta Lukasainen*) beraiek duten sistemarekin egitea, proba pilotu gisa. Berri on hau gustura hartu dugu, prozesu honetan boluntario lanean ari garen guztion ahaleginak balioesten eta berresten baititu. Harremanak eta elkarlanak indartzea ezinbestekoa da, eta bide honetan jarraituko dugu, gure helburuak eskualdeko zein lurraldeko eragileekin partekatuz.



Ibalur, gure denda

Zabalik da herriko janari denda berria: Ibalur. Urte erdiko lanen ostean, ateak zabaldu ditu, irekiera ekitaldi berezi batekin. Ianire Aranzabe musikari altzagarraren doinu eztiak eta Anne Otegi sukaldariaren pintxo goxoek ukitu berezia eman diote herritarrek irrikaz itxaron duten irekierari.

Argitsua, handia, irisgarria, berritzailea da herriko janari denda berria: Ibalur. Plazan bertan dago, Kaxintane tabernaren beste erpinean, frontoiaren ondo-ondoan. 130 metro koadroko denda da, eta herritarren premiak asetzeko ireki da. Ordutegi zabala du: 08:00etatik 19:00etara, astean zehar; eta larunbatetan, igandetan zein jai egunetan, 08:30etik 12:30era.

Otsailaren 21ean igo zen lehenengoz denda berriaren pertsiara, ekitaldi berezi batekin. Lagun kuadrilla bildu zen irekie-

ra ofizialera: dendaren sortzeko prozesuan parte hartu duen lantalde handia, eta, nola ez, denda berria ikusteko irrikaz zegoen herritar taldea. Kontxi Rodriguez eta Feli Veguin dendariak atarian ziren irribarretsu, denei ongietorria egiteko desioz. Jan-edanak ez ziren falta izan. Anne Otegi sukaldariaren pintxo goxoak dastatu ahal izan ziren, eta Ianire Aranzabe musikari altzagarraren abestiek alaitu zuten une berezia.

Luze jo du itxaronaldiak, baina merezi izan du, benetan ikusgarria eta eskuragarria bai-

ta denda berria. Beste janari dendaren aldean, nabarmen handiagoa da janari denda berria. Orain arte bezala, ohiko eta oinarritzko produktuen aukera zabala dago salgai: freskoak, bertakoak, artisauro produktua eta ekologikoak daude, haien artean.

Gertutasunari eta tokikotasunari garrantzia eman nahi zaio. Horregatik, gertuko ekoizleen produktuak erosteko aukera dago, betiko eta ohiko jakien ondoan. Kontsumo taldeko saskiak ere bertan jaso daitezke.

Berritzailea

Askoz handiagoa izateaz gain, berritzailea ere bada Ibalur. Zergatik berritzailea? Garai berrietara egokitutako denda delako, eta zerbitzu osagarriak eskainiko dizkielako herritarrei. Erosketak online egiteko aukera dago orain, <https://ibalur.eus> webgunearen bitartez. Tandem komunikazio enpresak garatu du webgunea.

Eta, gainera, laster, egindako eskaerak jaso ahal izango dira, dendaren albo batean jarri diren takilletan. Takillen erabilera azaltzeko bideotxo bat prestatuko dute, erabilera errazte aldera. Horrez gain, etxez etxeko zerbitzua martxan jartzea ere aurreikusten dute, berandu baino lehen.

Tarteka, erakustaldiak eta tailerrak ere egingo dira, garai-ko produktuekin otordu errazak eta goxoak prestatzeko aukera dagoela erakusteko, adibidez. Horretarako du dendak sukalde txikitxo bat. Sukalde horretan bertan, Anne Otegi sukaldariak jakiak prestatzen dituen bitartean bideoak grabatuko dira, sare sozialetan zabaltzeko.

Betikoa

Berritzailea da, beraz, Ibalur. Itxura aldatuta dator, azalberrituta, baina oinarrian, betikoa izaten jarraitzen du: herrirako erreferentea eta konfiantzazko denda. Herriko bizitzan aktiboki parte hartuko duen denda izango da, tokiko ekoizleekin elkarlanean ariko dena eta herritarrak zainduko eta babestuko dituen.



Ez da edozein denda, beraz. Berezia da, gertukoa. Eta gertukoa da ez soilik gertuko ekoizleen elikagaiak daudelako, tratuan eta harremanetan ere gertukoak eta konfiantzazkoak izan nahi dutelako baizik.

Herritarrekin komunitate bat eratu nahi da, eta komunitate hori elkarrekin zaindu, elikatu eta babestuko da. Herriko denda herritarren denda izatea nahi da: herritarren topalekua, harremanak sendotzeko gunea eta tokiko bizitza soziala eta ekonomikoa indartzeko espazioa.

Eta ez bakarrik Itsasondoko bizitza soziala, baita alboko herrietakoa ere. Hala, Altzaga, Arama eta Itsasondo batzen dituen denda izan nahi du Ibalurrek, eta horregatik, beste bi herrietan ere takillak jartzeko apustua egin da, Aramako zein Altagako beharrei erantzuteko asmoz; txikien baturak handituna baitak.

Araman, udaletxeko eraikina- ren ondoan daude Ibalur janari dendaren takillak, eta Altagan, udaletxeko eraikin barruan, postontzien ondoan. Laster, Ibalur dendan egindako eskaerak herrian bertan jaso ahal izango dituzte aramarrek zein altzagarrek. Norbere erosketak konfiantzaz, herrian bertan eta nahi denean egitea bezalakorik ez baitago.


IZENAK IZANA DU

Betidanik izan da herriko denda herriko bizitza soziala eta ekonomikoaren ardatz nagusia. Eta Ibalur ere funtzio hori betetzeko asmoz dator.

Lehenik, Ibarre taberna-dendak bete zuen zeregin hori. Hura itxi zenean, 1999. urtean, hutsune handi hori betetzeko apustua egin zuen Itsasondoko Udalak, eta janari denda bat zabaltzea erabaki zuen, 2000. urtean: Lurdes janari denda. 21 urtez, dendaren kargu egin zen Lurdes Aranburu itsasondarra. Lurdesek denda utzi zuenean, Feli Vegueinek eta Kontxi Rodriguezek hartu zuten lekukoa, 2021eko martxoan. Itsasondokoop. kooperatibaren bitartez, herritarren beharrak asetzen aritu dira, azken lau urteetan.

Ezin da ukatu Ibarre zein Lurdes erreferente izan direla herrian. Izen eta leku esanguratsuak. Egungo dendaren abiapuntu izan dira Ibarre taberna zein Lurdes janari denda, eta haien hitzen baturatik sortu da ireki den denda berriaren izena: Ibalur (Ibarre + Lurdes). Tandemek garatu eta diseinatu du herriko dendaren irudia, izena, azala eta mamia.

Ibarrek eta Lurdesek eskainitako zerbitzuari segida eman zioten Kontxik eta Felik, orain lau urte, eta bide beretik jarraitzeko asmoz hartu dute denda berriaren gidaritza. Goxotasunez eta mimoz herritarrak zaintzen eta elikatzen jarraitzea da euren asmoa.



Jose Antonio (Joxean) Mendizabal Aizpuru

Lore Txurin jaioa, aita Santi, San Juan baserrikoa eta, ama, berriz, Belen, karteronekoa. 5 anai-arreba gara, ni laugarrena naiz eta orain dela 60 urte jaio nintzen.

Itsasondon ikasi nuen eskola txikian hasita 11 urtera arte, Ordiziara ikastera joan nintzen arte. Han institutuan batxilergoa ikasi nuen eta gero Zaragozara joan nintzen albaitari ikasketak egitera.

Itsasondoko eskola txikiko zein oroitzapen dituzu?

Iturri txiki pareko eraikina dut gogoan. Berogailurik ez zegoela oroitzen dut, estufa zahar horietako bat genuen. Atzeko aldetik, lur azpian, ate txiki bat zegoen eta bertan gordetzen zen egurra

eta ikatza. Horrela, gure artean txandatuz igotzen genuen ikatza zein egurra eskola berotzeko. Frontoia ere gogoan dut, han ibiltzen ginen jolasean gora eta behera.

Gaur egun botatzeko dauden eskolak beranduago etorri ziren, ezta?

Bai, nola egin zituzten gogoratzen dut, gure etxetik nahiko gertu daude-eta. Han 6 urtetatik 11 urtera ibili nintzen. Lehenengo eskola txikian eta ondoren berrietan, gaur egun botako

dituzten horietan. Gero Ordiziara joan nintzen ikasketekin jarraitzeko, Urdaneta ikastetxera. Garai hartan nahiko berria zen, nire arreba Maria Teresak estreinatuko zuen agian. Bertan Ordiziako, Legorretako, Altzagako, Aramako... ikasleak elkartzen ginen. Inguruetako jendea ezagutu eta beste mundu bat zabaldu zitzaigun.

Gero ikasketak Zaragozan egin zenituen.

Bai, eta Zaragoza lekutan zegoen, urruti. Baina zorte ona

izan nuen izandako laguntza-
rekin eta primeran moldatu
nintzen. Gure etxetik inor ez zen
joan kanpora ikastera, ni eta
gero arreba gazteena ere bai.
Nire aukera gurasoei proposatu
nienean ondo iruditu zitzairen.
Hemen ere bazeuden makina
bat ikasketa, baina Zaragozara
joatea gustukoa nuen. Gainera,
lehengusuaren emaztearen fa-
milia bertakoa zen eta haiek to-
patu zidaten lo-lekua. Laguntza
asko izan nuen alde horretatik.
Nik hura ez nuen ezagutzen,
gurasoak izanak ziren ezkontza
bidaian eta hura zen nire errefe-
rentzia bakarra.

Anekdotak bezala... hara iritsi
eta nik guztiak agurtzen nituen
"adios" batekin, kalean topo
egiten nuenean, Itsasondan ohi-
tura genuen bezala. Konturatu
nintzen arraro begiratzen nindu-
tela. Laster oharatu nintzen han
jendeak ez zuela elkar agurtzen.

Zenbat urte eman zenituen bertan?

5 urte, 1982an hasi nituen ikas-
ketak eta 1987an bukatu.

Ikasle ona zinen?

Benoa, lana eginez gero gauzak
ateratzen dira. Unibertsitateko
ikasketak 5 urtetan egin nituen,
ikasgai batzuk errazago eta
beste batzuk gehiago kostata,
baina beti lan dexente eginda.
Oraindik gordetzen dut irakas-
leek oparitu zidaten liburuxka
bat; dedikatorian, "a la hormi-
guita trabajadora" izendatu nin-
duten.

Eta nola bururatu zitzaizun al- baitarritza ikastea?

Orain galdetuz gero albaitarritza
ikasi nahi duen bati ea zergatik
ikasi nahi duen, esango dizu

txakurrak, katuak, maskotak...
asko gustatzen zaizkiolako nahi
duela. Hor ere gauzak asko-as-
ko aldatu dira azken 50 urte-
tan. Garai hartan, gure herrietan
baserriak ziren gure gizarteko
ardatz edo zutabe nagusiene-
takoak, eta baserri bakoitzak
zuen abere kopuruak bere abe-
rastasuna adierazten zuen. Gai-
nera aita baserrikoa nuen eta
ohituta nengoen animaliekin,
udan belarra biltzen eta abar.
Beraz, baserri mundua gertukoa
nuen, eta albaitarritza ikasi nahi
nuela esan nuenean, aitari ilusio
handia egin zion. Amak eta ize-
bak berriz, ea zergatik ez nuen
medikuntza ikasten, baina niri
horixe gustatzen zitzaidan eta
horretan jarraitu nuen.

Unibertsitatea bukatzerako soldaduska?

18-19 urte betetzean solda-
duskara joatea tokatzen zen.
Zozketa egiten zen eta Melillara
joatea egokitu zitzaidan. Ikas-
ketak egiten ari nintzelako atze-
rapena eskatzeko aukera izan
nuen. Ikasketak bukatu, atzera-
pena ere bai eta berriro parte
hartu behar izan nuen zozketa
batean. Kontentu nengoen ba-
nekielako lehenengoan baino
urrutirago ezin izango zitzaidala
tokatu, baina zoritxarrez berriro
Melillara tokatu zitzaidan. Ho-
rrela behar zen, noski.

Hala eta guztiz, soldaduska-
ra joan baino lehen abereen
ekoizpenari buruzko master bat
egin nuen, eta, ondoren, Eusko
Jaurilaritzako beka bat lortu
eta ikerketa lanetan hasi nin-
tzen Fraisoren, "euskal oiloaren"
berreskurapenarekin. Han bi
urte eman nituen eta, azkenik,

1989ko udan Melillara abiatu
beharra izan nuen soldaduska
osatzerako. Han nengoela, aukera
izan nuen Lore Tokira lekual-
daketa eskatzeko, ze han ejer-
zitoak lasterketetarako zaldiak
zituen eta haiek zaintzeko albai-
tero bat behar zuen. Lore Tokin
asko ikasi nuen zaldiei buruz.
Bertako kapitain albaitaria arra-
tsaldeetan zein asteburuetan
bere kabuz ibiltzen zen lanean,
hortaz, ni egoten nintzen bere
ordez. Etxetik oso gertu nen-
goen, baina aldi berean urrun,
ze oso noizbehinka izaten nuen
aukera etxekoak bisitatzeko.

Soldaduskan diplomaren bat jaso zenuela entzun dut...

Bai, saritu ninduten diploma
batekin. Agiri horrek zaldiekin
lana egin nuela erakusten du.
Gordeta dut. Lan asko egitea
tokatu zitzaidan. Soldaduak
egiten zituzten guardiak batez
ere erditzeko zeuden behorak
zaintzeko izaten ziren. Erditzeak
gehienetan gauzez izaten ziren.
Guardian zegoen soldaduari
konturatu gabe erditzea pasa-
tzen bazitzaion, 15 eguneko bai-
menik gabeko zigorra ezartzen
zioten. Hori zela-eta, soldaduak
behorra lasai ez zegoela ikusten
zuen bakoitzean abisatu egiten
ninduen. Zenbat gau pasatu
nituen batere lorik egin gabe...
Diploma hori ere kostata lortu
nuen.

Soldaduska bukatu, diploma jaso, eta gero?

Eusko Jaurilaritzak emandako
bekarekin beste urtebete jarrai-
tzeko aukera nuen, baina ikusi
nuen Fraisoroko lanarekin ez
nuela aukerarik doktoretzako
tesia egiteko, fundamentu han-



Akademiko izendatu ninduenean, familiarekin (2024)



Katedraduna izendatu ninduenean (2019)



Joxemari Mujikarekin, Marrazki lehiaketan sarituak (1964)



Altzagarateko igoeran (1985)

dirik ez zegoela iruditzen baitzitzaidan.

Nik ikerketarako gogo hori mantentzen nuen eta Zaragozako Unibertsitatean matrikulatzea erabaki nuen doktoretzako tesia egiteko. Momentu horretan, 1990ean, laguntzaile plaza bat konbokatu zuten, sortu berria zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta hura lortu eta hona, Iruñera, etorri nintzen. Ordutik aurrera hemen egon naiz.

1990ean unibertsitatean hasi zinen lanean. Horrek esan nahi du albaitari lanean gutxi ibili zarela?

Bale, bai, baina kontuan izan behar da albaitari lanean hainbat arlo daudela. Ezagunena anima-

lien osasunean lan egiten duena da, animalien medikuntza; hori da ezagunena. Baina beste arlo batzuk ere badira: esate baterako, abereen ekoizpena, eta nik arlo horretan bukatu nuen.

Horren harira, badut anekdota bat. Unibertsitatean irakasle hasiberria nintzenean, hemen Itsasondan, behin meza ondoren nola esan zidaten gogoratzen dut... "Ai Joxe Antonio, zer pena, horrelako karrera egin eta orain maisu bukatu?"

Hor debate handia dago makroetxaldean bueltan... Zer iruditzen zaizu?

Gauzak arautu egin behar direla iruditzen zait. Adibidez, nahiz eta beste arlo batean izan, etxe

orratz bat eraikitzeak zentzua izan deake New York-en, baina Itsasondan? Makroetxaldekin gauza bera pasatzen da. Ekoizpen eredu batzuk ditugu ondo finkatuta eta horiek ezin ditugu bat-batean arriskuan jarri ekoizpen eredu berri hauek direla-eta. Familia askoren bideragarritasun ekonomikoa, landa-ingurunea mantentzea eta ingurumen-baldintzak arrisku larrian geratuko lirateke gure herrialdean.

Askok ikertu duzu. Frantziara ere joan zinen, ezta?

Bai, ikerketa bat egitera joan nintzen Frantziara. Tesia bukatutakoan, formazio postdoktorala kanpoan egin nahi nuen,

kanpoan zer egiten zuten ikusi eta ikasteko. Orduan Frantzian bazen ikerketa erakunde bat oso garrantzitsua, INRA, eta hara joatea erabaki nuen. Ezkondu eta emaztearekin joan nintzen. Nire emazteak ere tesia nirekin batera egin zuen hemen, Nafarroako Unibertsitatean. Berak gaztaren mikrobiologia aztertu zuen, Idiazabal eta Erronkari-ko gaztak ikertuta. Frantziako Clermont-Ferrandera joan ginen biok elkarrekin. Zentro berean aritu ginen, sail desberdinetan. Ondo egon ginen, gustura. Urtebete eman genuen bertan. Gure paisaiaren antzekoa zegoen lurralde hartan. Ikerketan, gainera, haiek aurrerratuago zeuden, erraztasun asko, laborategietan jende asko... aprobe txatu egin genuen.

Ikasten jarraitu zenuen? Kate-dratikoa zara...

Bai, pixkanaka aurrera egin dut. Batzuetan ateak irekita topatzen dituzu eta aurrera egitea erraza izaten da. Nik zorte ona izan dut, eta lana eginez hainbat eta hainbat pausu aurrera eman ditut; lana eginez, noski. Unibertsitatean lehiakortasun handia dago, baliabideak murriztuak dira... eta proiektuak aurrera eramatea kostatu egiten da. Baina nik zortea izan dut arlo honetan.

Irakasle eta ikertzaile. Ikerkuntza nahiago?

Unibertsitatean ikerketa gustatzen zitzaidalako sartu nintzen, hori horrela da. Baina ikasleekin ere gustura aritzen naiz. Kontu handiarekin ibili behar da dena den, gauzak asko aldatu baitira, ikasleek irakasleoi ere asko exi-

jitzen baitigute. Ikastera datoz, eta, hortaz, klase onak jaso nahi dituzte, normala den bezala. Eta horrek lan handia darama. Bulegoko atea beti irekita izaten dut eta askotan etortzen dira ikasleak. Batzuetan kexa eta guzti. Tarteka opariak ere ekartzen dituzte. Baina asko aldatu dira gauzak, egia esan. Ikasleekin serioa izan behar da eta dedikazio handia eskaini behar zaie. Orain metodologia aldaketarekin lan gehiago edo exigentzia gehiago dugu. Gaur egun ez da erraza irakaskuntza eta ikerketa, biak, behar bezala uztartzea. Baina nire bizitzan biak dira garrantzitsuak.

Zenbait aldizkaritan hainbat artikulua argitaratu dituzu, libururen bat ere bai...

Beno, batzuk bai... Gure ikerketa-lana argitaratzen ditugun artikulua kopuru eta aldizkarien arrakastaren arabera neurtzen digute, batez ere. Tenislariak bezala, sailkapenak eta indizeak izaten ditugu gure argitalpenak direla-eta. Azken urte hauetan, arlo hau ere asko nahastu da, sarbide librea duten aldizkariak zabaltzen direnetik. Sarbide librearen ideia oso ona da, baina aldizkari gehienek, bertan argitaratzeko, ordaindu beharreko baldintza jarri dute. Ia aldizkari guztietan ordaindu beharra izaten dugu gure lanak argitaratzeko. Diru asko mugitzen da eta makroetxaldean kasuetan antzera hemen "argitaletxe putrean" direlakoak sortu dira. Bestalde, dibulgazio mailan ere idazten ditugu artikulua, jende gehiagorentzat egokitutakoak. Arlo horretan ari gara pixka bat

lanean, jendeak gure ikerketa lanak ulertu ditzan.

Eta liburuak. Hori pixka bat modaz pasatuta gelditu da gure arloan. Liburu historikoak, garai bateko abeltzaintzari buruzkoak... argitaratu ditut. Baina orain dena azkar egin behar da, azkar publikatu behar da, eta gure arloan ez da liburu askorik idazten.

"Producción Animal, Nutrición y Ciencia de los Alimentos" delako ikerketa taldean zaude. Zer nolako ikerketak egiten dituzue?

Garai batean sekulako aurkikuntzak egiten ziren, baina gaur egun ez. Aurrerapenak egiten dira, baina pixkanaka-pixkanaka. Eta hortaz, ezin zara bakarrik ibili lanean. Talde bat behar duzu eta talde-lana ezinbestekoa da. Eta talde hau 15 bat ikertzailek osatu dugu. Gainera, ikerketarako dirulaguntzak jasotzeko egitura bat izan behar du taldeak.

Azken urteotan batez ere animalien ekoizpena eta haragiaren kalitatea aztertu ditugu. Haragia nola sortzen den edo nola ekoizten den deskribatzen hasi ginen, eta, gero, pauso bat gehiago emanaz, aztertu genuen elikadurak nola hobetu zezakeen haragiaren kalitatea. Orain esnea aztertzen ari gara, eta elikadura edo nutrizioa ere ikertzen ditugu.

Artikulu bat irakurri dut: hemen, Nafarroan, haragi artifiziala egiten duen enpresa bat omen dago.

Nafarroan ez da haragi artifizialik edo haragi kultibatua esaten duten hori egiten. Baina



Ikasleekin Etxarriko Oilo-Granja bisitatzen (2015)



Baztanen, Olaia Urrutia lankidearekin, Larrexuri eta Urkitze, in vitro ernalketaren bidez sorturiko txekorrekin (2017)

bada enpresa bat, bai, arrakasta handia izan duena. Ingeneritza enpresa bat da izatez eta "haragia" 3D inprimagailuen bidez egiten dute. Haragia edo beste jaki batzuk erabiltzen dituzte horretarako; gehienbat ilarra erabiltzen dute proteina iturri bezala. Batetik, inprimagailuak saltzen dituzte, eta, bestetik, janari inprimatu horiek. "Haragi" hori kalitate oso onekoa dela adierazten dute. Osasun aldetik izango da, lege kontrol guztiak pasatzen dituelako, baina jaki horrek "haragi" edo "okela" hitzez deitzea merezi al du?

Aurrerapenak onak dira, noski. Ondo dago berrikuntza, bultzatu behar da gainera. Baina gezurrik gabe. Justifikazio bezala esan izan dute munduko gosea desgertuko dela "haragi" hauen bitartez, eta ez da horrela. Zer ikusi du horrek? Azkenean negozioa egiteko modu bat da, paradigma aldaketa bat.

Asko zabaltzen zen gai honen inguruan idatzi nuen artikulua bat, The Conversation aldizkarian. Singapurren haragi artifiziala eskaintzen duen lehen jatetxea ireki zutenean eskatu zidaten artikulua. Bertan nire iritziak bota nituen eta hor esaten nuen niri ondo iruditzen zaidala be-

rrikuntzak egitea, baina gauzak diren bezala azaldu behar direla: egia. Gosearen arazoa ez dute konpainia hauek konponduko, negozio hutsa baita beraien helburua. Eta haragi mota hori zabaltzeko betidanikoa baztertu nahi dute. Aipatzen dituzte, batetik, animalien ongizatea; bestetik, behiek sortzen dituzten ingurumenaren aldaketak... Baina behiek ez dute kulparik. Zerura begiratu eta zenbat hegazkin pasatzen dira? Zer buelta egiten dira hegazkinetan hiri batetik bestera joateko ahal den bidaia merkeenetan? Adibide bat besterik ez da. Esan bezala, haragi kultibatua beste negozio bat besterik ez da, eta negozio horrek arrakasta izateko orain artekoa baztertu beharra du. Afrikako baldintzak ez ditut zehatz-mehatz ezagutzen, baina, adibidez, hango jendeari behiak kentzen bazaizkie, bizitzeko zer izango dute? Ez dauka zentzurik.

laz izendatu zintuzten Espainiako Albaitaritza Zientzietako Errege Akademiako kide. Hor errekonozimendua dago, aitor-tza ofiziala.

Bai, horrela da. Horrelako izendapena ikerkuntzan urte asko daramatzazunean etortzen da.

2023an aukeratu ninduten, eta urtebete izaten da sarrerako hitzaldia prestatzeko eta Akademian sarrera egiteko. 2024ko apirilera izendatu zuten nire sarrera, eta hori zela-eta Madrilen izan ginen familia guztia. Oso momentu hunkigarria izan zen. Gainera, bost anai-arrebak, gure senar-emazte eta seme-alaba batzuekin, juntatu ginen egun batzuk elkarrekin pasatzeko etxetik kanpo eta hori egiteko aukera ere eman zigun izendapen horrek.

Zenbat kide ditu Akademiak?

Denera 60-70 akademiko inguru ditu. Bost sekziotan gaude banatuta: Albaitaritza-medikuntza, Oinarriko Zientziak, Osasun Publikoko albaitaritza, Zooteknia eta Albaitaritzaren historia. Ni azken arlo horretako partaidea naiz, eta talde horretan ikerketak egiten ditugu. Aholkularitza ere bai. Adibidez, ikasketetako planak aldatu behar direnean zer alda daitekeen eta zer ez aztertzen dugu. Hitzegia ere garatzen ari gara, albaitaritzan beti erabili diren hitzak ez galtzeko.

Unibertsitatetik kanpo bizitza ere izango duzu, noski. Zale-tasunik?

Alde horretatik nahiko arrunta

naiz. Gaztetan bizikletan eta korrika ibiltzen nintzen, maratoiak egiten, eta mendian ere asko. Eta horretan jarraitzen dut, mendira joatea gustuko dut. Korrika eta bizikletan egiteari utzi nion eta orain emaztearekin paseatzera ia egunero joaten naiz, bueltatxo bat ematera. Tarteka zinera, antzerkita... Oporretan, irakurtzea oso gustuko dut, baina gehienbat mendira joatea aipatuko nuke. Urtezahar egunean berriz, Aizkorrira joan ohi gara.

Eta elkarriketa honetan aipatutako ekintza asko eta asko, azken finean, zaletasunak dira; azterketak zuzentzea ez, baina bestelakoak, bai.

Jubilatzen zarenean, zer asmo? Zer helburu izango duzu?

Ezer berezirik ez. Ez dakit noiz jubilatuko naizen, ez eta nolako osasuna izango dudan orduan. Akademiako kontu honekin, adibidez, osasuna mantentzen dugun bitartean lanean jarraitzen dugu. Astelehenero bilerak edo ekitaldiak egiten ditugu, bideokonferentzia bidez edo bertara joanez. Hori hor egongo da betiko.

Historia ere, beti gustatu izan zait, eta gaztetan, adibidez, Tolosako artxibora joaten nintzen zaletasun gisa, eta Itsasondoko kontuak topatzen ibiltzen nintzen. Hemen, Iruñean, ere artxibora joan izan naiz. Izan ere, 1862ra arte Itsasondo eta Gipuzkoako beste herri asko Iruñeko elizbarrutiaren barruan zeuden, eta hemen ere kontu asko bilatu ditut Itsasondokoak. Jubilatzen naizenean berresku-

ratuko dut Itsasondoko historiaz dudan zaletasun hau.

Bestalde, boluntario bezala ere ibiltzen naiz. Duela urte batzuk semeen ikastetxean guraso boluntarioak eskatu zituzten, eta han hasi nintzen zenbait programetan laguntzen. Egun, zaharren egoitza batera joaten naiz asteen bi orduz haiei konpainia egitera, paseatzera, hitz egitera... Lana utzi ondoren jarraitu nahi nuke aktibitate hauekin.

Beraz, ez da asko aldatuko nire bizimodua jubilatzen naizenean, osasuna mantentzen dudana bitartean, behintzat.

Azken anekdota bat?

Aste honetan burura etorri zaidan bat kontatuko dut. Ikasleekin Euskal Wikipediari buruz lantegi bat egiten ari ginen, eta etorri zitzaigun adituak aipatu zigun honako hau: Euskal Wikipedia edukiz betetzea XXI. mendeko auzolan mota bat dela. Orduan, burura etorri zitzaizkidan Itsasondon 70 eta 80eko hamarkadetan egiten genituen auzolanak: elizako berrikuntza, Sanjuan bidean argi-farolak jartzea, Murumendiko bitxurrak garbitzea edo eta beste hau, nik inoiz ez dudana ahaztuko: 1987ko iraila zen, Albaitaritzatikasketak osatzeko hilaren erdirako karrera amaierako proiektua aurkeztu beharra nuen. Era berean, masterra egiten hasia nintzen Montañanan, Zaragozatik gertu. Nola hala prestatu nuen lanaren testua, oilo-etxalde bati buruzkoa, epe amaiera iristear zegoela. Baina, eskuz prestatua nuen, eta azkenean uste baino orri askoz gehiago, berrehundik gora, juntatu

zitzaizkidan. Etxean berriz, idazteko makina bakarra genuen. Ostiral arratsaldea zen, aste-ko klaseak bukatu nituen, eta gauean Zaragozatik Itsasondora joateko tren hartu behar nuen. Erabat urduri jarri nintzen, ez zelako posible makinaz pasatzea horrelako orri kopurua egun eta erdian. Arrebari deitu nion tren hartzearen nengoela eta nire larritasuna azaldu nion. Lasai egoteko esan zidan. Entzun bai, baina nik ez nuen batiere lorik egin traiektu guztian, urduritasunak jota. Itsasondora iritsi goizean goiz, eta han topatu nuen arreba gure idazteko makinarekin, eta beste zazpi lagun -anaia, lehengusu eta bizilagunak-, bakoitza bere idazteko makinarekin lanean hasteko prest. Handik pixka batera, hor ziren Itsasondon zeuden Olivetti idazteko makina guztiak jo eta ke, klak, klak,... soinua joz. Han aritu ginen 8-9 lagun larunbat eta igande osoan lanean etengabe. Igande gauean denei nire esker beroenak eman, gurasoak agurtu eta gustura joan nintzen nire proiektua beso azpian hartuta Beasaingo geltokira. Behin trenean lasai eserita, denbora izan nuen proiektuari begirada bat emateko. Orduan konturatu nintzen Olivetti batek I tekla falta zuela, alde guztietan "ga ina" "gallina"n partez ikusten nuen, beste bati tinta gastatu zitzaioela, eta abar. Baina astelehen goizean aurkeztu nuen eta itxurazko nota jaso ere bai. 1987an, orduan oraindik Itsasondon ez zen ordenagailurik, baina bai auzolan espiritu ederra.

Udala mendiko lursailak erosten ari da

XVII. eta XIX. mendearen hasieran, gerren ondoriozko gastuek gainezka egin zuten udaletan.

Behar horiei aurre egiteko asmoz, Gipuzkoak 1738an Mendien Erreglamendu berria ezarri zuen, eremu batzuen hegaldia bizilagunei lagatzeko aukera ezartzen zuen, landaketak egin zitzaten, eta horrek, de facto, bide arriskutsu bat ireki zuen kontzeju-lurak okupatu eta etorkizunean besterentzeko, partikularren esku utziz.

Itsasondoko kasuan, Udalak 1738an 90.000 'postura' (azalera neurtzeko zuten neurria) zituen, eta horietatik 1.800 'postura' besterik ez zitzaizkion geratzen 1818. urtean. Hau da, kontzeju-lurren % 90 saldu zituen gastu-beharrei aurre egiteko.

Ordutik eta XX. mendeko bigarren erdira arte, nekazaritzara eta abeltzaintzara bideratuta jarraitu zuen gizarteak eta jabetza kontuak ez ziren asko aldatu. Lehenengo argazkian ikusi daitekeen moduan, 1956an oraindik soroak ziren nagusi Itsasondoko paisaian, eta lurra goldatu ezin zen lekuetan gaztainadiak ikusi ditzakegu oraindik, ordurako gaitzak jota eta beherakadan egon arren. Ekoizten ziren garia, artoa, babarruna, patatak, arbiak... herritarren elikaduraren oinarri ziren.

Mendeetan zehar gaztaina funtsezko elikagaia izan zen, batez ere etxe xumeetan. Mende hartako lehen hamarkadei



Irudia: Itsasondo 1956an

erreferentzia egiten dieten lekukotasunen arabera, "dirudunek, afarietan, gaztainen aurretik salda edo beste elikagairen bat hartzen zuten; pobreek, gehienetan, gaztainak bakarrik"

Baina industriaren gorakadak, arbela ustiatzeko meatzaritza Itsasondoren kasuan, aro berri bati hasiera emana zion eta azken hamarkada hauetan paisaia atzekoz aurrera jartzearaino aldatu zaigu.

Joan ziren soroak eta gaztainadiak, etxeak ugaritu egin dira herrigunean, eta pinudiak edo belardiak mendi aldera estali dituzte.

Horrekin batera, pinudien etekina gutxitu den honetan,

lur gehienek lehenago zuten interesa galdu dute eta jabe askorentzat karga bat besterik ez izateraino iritsi dira.

Egoera berri hau ikusirik, orain dozena bat urte udalerriko lurrak publiko bihurtzen joateko ekimena jarri zuen martxan Itsasondoko Udalak, eta, orduetik, beren lurrak saldu nahi zituzten jabeekin akordioetara iristen joan da; dagoeneko 200 ha publiko bihurtu dira.

Jarduera hau bi arrazoi nagusitan oinarritzen da:


1. Lurzorua herritarrek etorkizunerako dugun kapital estra-

tegiko bat da eta ez zaigu komeni etekin azkar batzuen bila suntsitzea.

2. Apustu garbia egin nahi dugu lurraldea herri-ondasun bihurtzeko eta bere ahalmen guztiak adierazten laguntzeko, gure ondorengoen bitziza aseguru delako.

Bestela esanda, naturaz gehiago gozatu ahal izango duen herri bat nahi da, eta horretarako mendien ustiaketa ahalik eta onura publiko gehien lortzera bideratu nahi da.

Hurrengo batean azalduko ditugu terreno hauetan egiten ari diren lanak, herritarren onura hori helburu.



Udalak erosi dituen lursailak

Telegram

Urtarrilaren 13tik aurrera,
Udaleko berriak 'Itsasondoko
Udala' Telegrameko kanalaren
bidez zabaltzen dira.



Telegram kanala

**ITSASONDOKO
INFORMAZIOA
ZURE ESKURA**

<https://t.me/itsasondo>
taldera gehitu behar zara
Telegrametik.

Mezuak euskaraz jasoko dituzu baina
aukera izango duzu Telegramek eskaintzen
dituen hizkuntza guztietara itzultzeko.



ITSASONDOKO
UDALA

Itsasondoko Udalaren Telegram kanala duzue
hau. Bertan, udaleko komunikazioak eta
informazioa jasoko dituzu. Euskara hutsez
idatziko da kanal honetan, eta mezuak zure
hizkuntzara itzultzeko aukera izango duzu
(azalpenak Android eta iOSerako).



Lehenago Whatsapp-eko Herri Bi-
zitza taldean zabaltzen genituen
albisteak Telegramen bidaltzen di-
tugu orain, aplikazio horrek aukera ematen
baitu hartzaileek mezuak beraien
hizkuntzara itzultzeko.

Telegram kanala informazioa herritar
gehiagorengana iristeko helburuare-
kin sortu da. Udalak mezuak euskara
hutsean zabaltzen ditu, eta euskara
ulertzen ez duten hartzaileek aukera
dute mezuak beraien hizkuntzara itzu-
lita irakurtzeko. Eskolak ere, joan den
ikasturtetik, Telegramen bidaltzen diz-
kie mezuak familia guztiei. 'Euskara eta
kulturartekotasuna' proiektuaren baitan
egin dira aldaketa horiek.

Herri Bizitza taldean dauden kide
gehienak Itsasondoko Udaleko kanalean
dauden arren, badira, oraindik, hainbat
herritar kanalera batu ez direnak. Hori
dela-eta, deia egiten diegu Telegram
aplikazioa instalatu eta Udaleko kana-
lera batzeko, horrela ez dute albisterik
galduko eta!



Efrem Nicolau Mussons



.....
Emaztea eta seme-alabekin
bizi da Itsasondon.
Gustuko du bertako lasaitasuna.
.....

Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2023ko maiatzaren bukaeran.

Non bizi zinen lehen?

Katalunia barnealdeko herri baten bizi ginen, Anglesen.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Bikotearekin batera hartutako erabakia izan zen. Herri txiki bat bilatzen genuen, gustuko eskola zeukana eta bi aukera lortu genituen, Orendain eta Itsasondo. Azkenean, bizitzak hona ekarri gintuen, Itsasondora.

Zer gogoratzen duzu etorri zineten lehen egun hartatik?

Hainbat gauza gogoratzen ditut, batez ere, Amaiaren lagun askoren laguntzarekin mudantzan goraino kargatuta genuen furgoneta deskargatu genueneko.

Zer lanbide duzu?

Urte luzez makrobiotikako sukaldari irakasle ibili naiz; baina, gaur egun, idazle bokazioari heldu diot.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen?

Autobiatik datorren zarata ez zait gustatzen.

Eta zer duzu gustukoa?

Ingurunea, zerbitzuak, herri bizitza, herri handiagoekekin duen lotura...

Zer zaletasun dituzu?

Mendi ibilbideak egitea, tenisa eta idaztea.

Janaririk gogokoena.

Orokorrean janariarekin gozatzen dut eta egunerokoan errezeta arruntak, osasuntsuak eta, gehienbat, beganoak aukeratzen ditut.

Edaririk gogokoena.

Manantialeko ura eta infusioak.

Gogoko duzun Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Herri txikia bada ere, hainbat txoko xarmant ditu, harraska esaterako, alde zaharra edo Mendibilera igotzeko bidea.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Bizitzan asko dira kanpotik barrea eragiten didaten gauza berrigarriak, baina barruko barrea zerak sortzen dit, lagunmin batekin elkarriketa arrunt ardura bakoak.

Itsasondon biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Altzagan biziko nintzateke, asko gustatzen zait herri hori. Besteren bat aipatzearren, Orendain edo Bidania. Naturaz inguratutako herri txiki bat aukeratuko nuke, mendi ibilbideak hurbil egiteko aukerarekin.

Euskaraldia

Hiru edizio, zazpi urte, 400 herri batzorde, 8.000 entitate parte hartzaile eta milaka ahobizi eta belarriprest geroago, Euskaraldia jendartean finkatu eta egonkortu dela esan dezakegu.

Ezaguna da ekimena, parte hartzaile gehienek, esaterako, 2018tik ezagutzen dute Euskaraldia, eta ariketa bezain ezagunak dira hark bultzatzen dituen arau sozialak eta hizkuntza-praktikak ere. Izan ere, zifrak aipatzea erraza bada ere, alde kualitatiboa da Euskaraldiaren ekarpenik garrantzitsuena eta esanguratsuena.

Euskaraldiaren hiru edizioen inguruan egin diren ikerketek argi erakutsi dute Euskal Herri osoan milaka eta milaka herritarrek, gutxi-asko, beren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararako jauzia eman dutela Euskaraldiari esker: familian, lagunartean, lantokietan nahiz ezezagunekiko harremanetan. Ezagun zein ezezagunekin lehen hitzak euskaraz egitea ohikoagoa bihurtu du Euskaraldiak, ariketetan parte hartu duten herritarren bidez; ulertzen dutenen artean elkarrikketa elebidunak izatea posible dela azaleratu du, eta herritarren arteko adostasunak bultzatu ditu horretarako, ariguneen bidez. Euskal Herrian euskaraz eroso aritu ahal izatea pertsonen nahia eta eskubidea direla ikusarazi

du, eta eskubide hau betetzeak gizartea berdinago, enpatikoago eta konplizeagoa egiten duela. Parte hartzaileen bizipenak eta ikerketa guztien emaitzak dira baieztapen horien isla.

Euskaraldi bakoitzean euskararen erabileran irabaziak eta lorpen praktikoak erdietsi dira. Ekimenaren hiru edizio egin ditugu jada, eta edizio batetik hurrengora ariketaren alde teknikoak aztertu izan ditugu urtetik urtera ariketa egitea eraginkorragoa izan dadin. Euskaraldiaren hirugarren edizioa burutu ondoren, balorazioak, ebaluazioak eta aurrera begirako erabakiak hartzeko denbora tarte bat hartu genuen 2023an.

Antzizio handiko ekimena da Euskaraldia, are urrunago heldu nahi duena. Hiru edizio pasata ere, etengabeko sortze prozesuan jarraitzen du egitasmoak, gizartean eraldaketa sakonagoak bultzatzeko. Izan ere, beti aipatu dugu ekimen hau arnas luzeko egitasmoa dela, pausoz pauso egin beharrekoa. Marko mental berria proposatu zuen Euskaraldiak 2017an aurkeztu genuenean, euskararen ezagutzatik erabilerara salto egitekoa, harreman linguistikoetan gauzak beste modu batean egin eta baloratzekoa. Eta, gizartea aldatzeko, norberak aldatu behar izaten du sarritan.

Horixe izan zen Euskaraldia antolatzen dugunon 2023ko helburua: ariketaren sustraiak, esentzia aldatu gabe, eraginkorragoa egiteko formulak bilatzea, definitzea eta aplikatzea. Bada, zehazki, aspalditik antolatzaile askoren ahotan dabilen proposamen bat: ariketa soziala, udazken betean beharrean, udaberrian antolatzea. Gizarte bizitza gehiago dagoen garaian esku hartu nahi du ekimenak, baldintza sozial egokiagoak dauden garaian hain zuzen, harreman sozialetan ahalik eta astinaldi handiena



eragiteko, beti ere hizkuntzaren begiratutik. Horiek horrela, Euskaraldiaren laugarren edizioa 2025eko udaberrian izango da, maiatzaren 15etik 25era, hain zuzen ere.

Itsasondo, Altzaga eta Arama artean Euskaraldirako girotzeko batzordea sortu dugu. Lehen bilera otsailaren 5ean egin zen eta bertan adostu zen girotzea egiteko hiru herrietan egingo diren ekintza kulturalak baliatuko direla. Horrela bada, hainbat bitarteko erosiko dira (lonetak, pegatinak etab.) eta ekimen horietan banatuko dira.

Horrez gain, ariketak irauten duen bitartean ere ekintzaren bat egin nahi da, eta horretarako batzordea bilduko da berriz data hauetan:

Martxoak 12, 19:00 Arama

Apirilak 9, 19:15 Altzaga

Maiatzak 7, 19:00 Itsasondo

Herritar guztiak animatu nahi ditugu bilkura hauetan parte hartzera.



Mintzalaguna

Euskararen erabileraren gutxitzeak kezkatuta eta gure herrian euskaraz ez dakitenak herri bizitzan euskaraz integratu daitezen, MINTZALAGUN dinamika jarri dugu martxan.

Dagoeneko herritar batzuk, euskaraz hitz egiteko erraztasuna dutenak zein praktikatu nahi dutenak batu dira dinamikara eta lehen topaketa egin zuten, urtarri-laren 31n. Bertan, bikote edo mintza taldeak sortu eta bakoitzaren prestutasunaren arabera hitzordu berriak adostu zituzten. Ostiraleror, 19:00etatik 20:00etara biltzea da asmoa.

Telegramako taldea ere sortu dute, bertan hitzorduen inguruko informazioa partekatzeko helburuarekin. Inork taldean parte hartzen hasi nahi badu, mintzalagunen bati aipatu edo udaletxean jakinaraztea besterik ez du.

Urtean zehar deialdi orokor gehiago egiteko asmoa badago ere, egokiena sortutako talderen batean parte hartzen hastea da. Mugitu mingaina ba, euskaraz, noski!





“Elkartea bizirik bada, herria ere bizirik dagoen seinale izango da”

Bi urtez Arbel-Aitz elkarteko zuzendaritza batzordeko kide izan da Leire Irastorza; azken urtean, lehendakari karguan.

Urte interesgarriak izan direla aitortu du.

Onartzen du lana erruz egin duela, baina harreman onak egin dituela eta elkarteari zein herriari lagundu izanaren sentsazioa duela. Pozik utzi du kargua, baina ondorengoei laguntzeko prestutasunarekin doa.

Lehendakari kargua utzi berritan, zer sentsazio duzu?

Pozik nago, herriko eragile garrantzitsu baten barne funtzionamendua eta egitekoa gertutik ezagutu ditudalako. Pozik ere, ahal dudan neurrian gauzak ahalik eta txukunen egiten saiatu naizelako eta nire aletxoak jarri dudalako elkartean.

Herria bizirik mantentzeko, herritarren arteko lankidetzak sustatzeko eta herri aktibo eta parte hartzaile bat izateko ekintza ugari antolatzen ditu Arbel-Aitzek, eta horregatik da eragile garrantzitsua. Ekintza horiek antolatzen aritu naiz, eta, alde horretatik, gustura nago egindako lanarekin.

Orain, lasaiago egongo naiz, kezka bat gutxiago izango dut, eta lan karga gutxituko zait, kargua utzi dudan honetan. Lana izan da, bai, baina bere pozak ere eman dizkit zuzendaritza kide izateak. Eta pozik noa herriari zein elkarteari egin diodan ekarpenagatik.

Urteko zer balorazio edo balantze egiten duzu?

Oro har, ondo joan da urtea. Gorabeherak egon dira, baina positiboki amaitu dugu urtea. Herriari bizia ematen saiatu gara, eta horretarako antolatu ditugu hainbat ekintza: Emakumeen Eguneko bazkaria, martxoan; garagardo azoka, ekainean; sagardo dastaketa, festetan; pintxo potea eta festa ondorengo lau ostiraletan, besteak beste. Batzarrean errepasoa egitean, konturatzen zara zenbat lan eta gauza egin diren urtean. Eta horrek asko betetzen zaitu.

Bi urtez egon zara zuzendaritza batzordean; azken urtea, lehendakari gisa. Zer eman dizu esperientzia horrek?

Lehen urtea lasaiagoa izan zen, baina bigarren urtean lehendakari postuan egon behar izan dut, eta egia da lan gehiago izan dudala. Baina lanerako babesa eta talde ona izan ditut, eta horrek arindu dizkit buruhaustekak eta egitekoak.

Lana egin behar izan dut, bai, eta ardurak izan ditut, baina harreman on asko egin ditut, eta ziur naiz zuzendaritza batzordean egongo ez banintz, ez nituela egingo egin ditudan harreman, lotura eta lagun-harreman batzuk. Egunerokoan egongo ez nintzen jendearekin egoteko eta harremantzeko aukera eman dit elkartek, adibidez.

Nola antolatzen du lana zuzendaritza batzordeak?

Zuzendaritza batzordea hamar lagunek osatzen dute: lehendakaria, idazkaria, kontu hartzailea, erosketak egiteaz arduratzen den bazkidea eta

sei sotolariak (urte osoan, edariak ateratzeaz arduratzen dira, txandaka).

Bosnakako taldeak osatuta daude, eta txandakatuz egoten dira zuzendaritza taldean. Modu horretan ziurtatzen da bazkide guztiak pasatzen direla zuzendaritza batzordetik. Talde bakoitzak bi urtetako kargua betetzen du; aldiko bi taldek osatzen dute zuzendaritza batzordea.

Zuzendaritza batzorde horrek izaten du urteko lan karga handiena, baina gero herrirako egiten diren ekintzetarako boluntarioak eskatu ohi dira lanerako. Oso garrantzitsua da bazkideen laguntza ekintzak burutzeko.

Zer da elkartearen zuretzat?

Azken urtean oso presente izan dudan txoko bat izan da. Lana eskatu didan zeregin bat izan da, baina, aldi berean, bere pozak eman dizkidana ere. Maiz, familia artean edota lagunekin elkartzeko eta ondo pasatzeko aukera eman didan espazio bat ere izan da.

Otorduak egiteko leku izateaz gain, ekintzen antolatzaile ere bada elkartearen.

Bai, Arbel-Aitz ez da soilik otorduak egiteko leku bat, herritarren topagune bat ere bada. Herria aktibo eta bizirik mantentzeko eragile garrantzitsua ere bada, eta hori lortze bidean antolatzen ditu hainbat ekintza, aurrez aipatu dudan moduan. Garrantzitsua da, beraz, ekintza horietan egotea, bai antolaketan zein parte hartzen.

Azken batean, ezin dugu ahaztu Arbel-Aitzen esentzia edo sustraiak hortik datozela: herritik eta herriarentzat sortutako elkarte bat dela.

Zer aukera ematen ditu elkarteak?

Jende kopuru handia elkartzeko aukera ematen du. Orotara, 70 bat lagun sartzen dira elkartearen. Otordu handiak egiteko prestaturik dago; parrillak, plantxak, labeak eta bestelako tresneriak eta ekipamenduak ditu.

Inoiz edo behin ere egin izan da sukaldaritza tailerren bat. Azken urtean, herrian sortu den kookeratz taldea ere bildu izan da asteazkenetan.

Inork bazkide egin nahi badu, zein dira baldintzak? Zer egin behar da?

Zuzendaritza batzordeari eskaera egin behar zaio, eta gainerako bazkideek 15 eguneko epea izan ohi dute kontrarik edo ezer esatekorik badute, esateko. Inork ezer esaten ez badu, eskatzailea bazkide bihurtzen da, eta elkartearen erabiltzeko aukera izaten du. Urtean, 360 € dira, eta aldi bakarrean edo hilean 30 € jarri ordaindu daiteke.

Bazkide izateaz gain, giltza-laguna egiteko aukera ere badago, ezta? Zein dira baldintzak? Nola egin daiteke giltza-laguna?

Bazkide bakoitzak giltza-laguna bat eskatzeko aukera dauka. Kasu horretan, kuota txikiagoa da: 7,5 € hilabetearekin edo 90 € urtean (aldi bakarrean ordaindu nahi izanez gero). Giltza-laguna izateak esan nahi du elkartearen giltza izango duela laguna horrek, eta sukaldaria zein elkartearen baliabideak erabiltzeko aukera izango duela.

Bazkide egiteko bezala, zuzendaritza batzordeari eskaeraren berri eman behar zaio, eta 15 egunen buruan erantzun behar du zuzendaritzak. Eskaera egiteko, bazkideren baten senidea (izan bikote, izan seme-alaba, izan anai-arreba) izan behar da.

Egun, zenbat bazkide ditu Arbel-Aitzek? Eta zenbat giltza-laguna?

2024ko urtarilean egin zen batzarretik hona, bost baja eskaera egin dira eta alta bakarra. Giltza-lagunen kasuan, ia zehatzki hona, bi eskaera izan dira. Beraz, gaur egun, 50 bazkidek eta 13 giltza-lagunek osatzen dute Arbel-Aitz elkartearen. Garai batean, 90 bazkide inguru ere izan ziren, eta Arbel-Aitz elkartera sartu nahi izan zuten herritar batzuk itxaron zerrendan egon behar izan zuten. Pentsa! Nola aldatu diren gauzak, e!

Elkarte guztietako errealitatea da: gero eta bazkide gutxiago dituzte elkarteek. Nola geratu galera hori? Nola animatuko zenituzke herritarrek?



Zaila da joera edo galera hori geratzea. Ez da errealtate isolatu bat Itsasondokoa; herri askotan ari da gertatzen. Gizartearen ohiturak nabarmen aldatu dira. Garai batean, lagun artean zein familiarekin elkartzeko lekutzat zituzten elkarteak, otorduen bueltan ospakizunak egiteko txokoak; gaur egun, ordea, elkarteetara joan ordez, jate-txeetara joateko joera areagotu da. Ez dago koiztatzeko hainbeste ohiturarik, eta maiz, lana egin ordez, erraztasunerako joera dago: zerbitzatzen gaituzten lekuren batera joan, eta kito.

Elkarteak sortzeko bultzada epeldu egin da. Garai batean, bazkideen nahietatik eta beharretatik sortu-tako leku autogestionatuak ziren elkarteak. Premia eta behar batzuegatik sortu ziren, eta, egun, ez da behar hori antzematen. Hala, lehen, halako espazioei beste balio bat ematen zitzairen; gaur egun, elkartei ematen diegun funtzioa, erabilera edo balioa bestelakoa da, ez lehen zutena, behintzat.

Garrantzitsua da herritarrek balioan jartzea elkarteek duten garrantzia. Hasteko, herriak bizirik mantendu nahi badira, funtzio ezinbestekoa betetzen dutelako elkarteek, gainerako eragileekin batera. Halako espazio komunitarioak edo elkarteak beharrezkoak dira herri bizi eta osasuntsu bat mantentze aldera.

Herriko altxor txiki bat ere bada Arbel-Aitz. Pena litzateke 60 urtetik gora dituen elkarte historikoa ixtea, bazkiderik ez dagoelako eta bideragarria ez delako. Herritar talde batek ordu asko sartu ditu eta inbertsio handia egin du elkartean, eta penagarria litzateke hori galtzen ikustea. Azken batean, elkartearen bizirik bada, herria ere bizirik dagoen seinale izango da.

Nola ikusten duzu elkartearen etorkizuna?

Ez da erraza aurreikustea zer gertatuko den, baina martxa honetan, beltz samarra da etorkizuna. Azken urteetako joerak jarraitzen badu, bazkide-tza kopurua mantentzea zaila izango da. Azken batean, herri txikia da gurea, eta ez datoz biztanle berri asko, beraz, zaila da bazkide berriak topatzea eta egitea. Egun duen funtzionalitate honetan, zailtasunak izango ditu. Azken batean, bazkideak galtzen ari badira eta gaur egungo joera halako espazioak ez erabiltzekoa bada, ez da erraza izango bizirautea. Baina itxaropen izpi bat ere badut, aurrera jarraituko duela, gauzak beste modu batera planteatuta: espazio horiei bestelako erabilpen bat emanez, adibidez.



ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Urteko batzar orokorra egin zuten Arbel-Aitz elkartearen bazkideek, urtarilaren 25ean. 30 bazkide bildu ziren, eta aurreko urteko batzarreko akta onartuz hasi zuten batzarra. Jarraian, iragan berri den urtearen errepaso egin zuten: antolatutako ekintzak, egindako konponketak, urteko balantze ekonomikoa, bazkideen bajak eta eskaera berriak eta elkartearen dagozkion beste hainbat kontu.

2024eko urtarileko batzarretik hona, 5 baja eskaera izan dira, eta alta bakarra. Gauzak horrela, gaur gaurkoz, 50 bazkide osatzen dute Arbel-Aitz elkartearen, eta 14 herritar dira giltza lagunak.

Batzarkideen zalantzak argitu eta proposamenak aztertu ostean, zuzendaritza batzordera sartuko diren kide berriak aurkeztu ziren, bigarren urtez lanean jarraituko dutenak aipatu ziren, eta zuzendaritzako taldea utzi dutenak agurtu zituzten. Ez zuten lehendakari berririk aurkeztu, kargua nork hartuko duen erabakitzeke geratu delako.

Batzararen amaieran Leire Irastorza lehendakariak azpimarratu zuen moduan, herriari bizia ematen dio elkarteak, eta irekita mantentzeko modurik onena da bazkide berriak egitea, elkartearen erabiltzea eta elkartearen antolatutako ekintzetan parte hartzea.

Batzarra amaituta, afari eder baten bildu ziren hala nahi izan zuten bazkideek.

Elkartearen zenbakitan

Elkartearen sorrera urtea: 1962.

Bazkideak: 50 bazkide.

Giltza lagunak: 14 giltza lagun.

Urteko kuota: 360€ (bazkideak) eta 90€ (giltza lagunak).

Hemeroteka



IPUIN KONTAKETA (azaroak 20)

Haurren eskubideen nazioarteko eguna dela-eta ipuin kontaketa saioa izan genuen Betzaida Urtazaren eskutik. Haur taldetxoak liburutegian elkartu zen eta oso parte-hartzaile egon ziren.



"SAHARA, HERRI BAT ERRESISTENTZIAN" LIBURUAREN AURKEZPENA (azaroak 22)

Sahararekiko elkartasuna adierazteko beste modu bat ere bada herriak hamarkadetan zehar jasan duen zapalkuntza argitara ematera. Helburu horrekin erresistentzia horren kronika jasotzen duen liburuaren aurkezpena egin zen. Goierriko hamabostaldi internazionalistaren egitarauaren barruan eskaini zen saio hau.



KANTU AFARIA (azaroak 22)

Urteroko zitara ezin hutsik egin, eta aurtengoan ere Kuxkuxtuko lagunek afaloste bikain bat eskaini ziguten. Jendetza bildu zuen aurtengo deialdiak, eta, aparteko afariaz gain, giroa ere horrelakoa izan zen.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKA (azaroak 25)

Ohiko elkarretaratzea egin dugu aurten ere. Emakumeen aurkako indarkeria salatzea izan zen plazan elkartu ziren lagunen helburua.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO ERAKUSKETA (azaroak 26)

Haurrekin egindako lanketa erakusgai jarri nahi izan zuen Urkipe eskolak. Horretarako haur txokoa erabili zuten, eta eskolan egindako irudiekin osatutako erakusketa jarri zuten.



“EUSKALDUNON JATORRIA, EUSKARA ETA IRRIA” TXIKI (azaroak 30)

Bere azken emanaldietako bat eskaini zigun Ion Martinez “Txiki” umoregileak. Euskaldunon jatorria azaldu zuen umorez beteriko emanaldi batean, eta une dibertigarri zein hunkigarriak eskaini zituen.



TALO JANA (azaroak 30)

Herritik eta herriarentzat egindako talo jan bikaina izan dugu aurten ere. Jende ugari bildu zen gazte zein helduek egindako taloak dastatzera.



BIXI- BIZI AURKEZPENA (abenduak 16)

Kirola, osasuna eta artea barne biltzen dituen egitasmoaren berri eman zuten bertako arduradunek.



OLENTZERO ETA MARIDOMINGIREN ETORRERA (abenduak 24)

Aurten ere izan dira gurean Olentzero eta Maridomingi. Eguraldi eurietsua izan arren, giro ederra sortu zen eta beste behin ere base-rritarrez bete ziren herriko txokoak.



2025

HARRI MARGOTUEN TAILERRA (urtarrilak 23)

Laurak gidatuta, harri margotuak egiteko sorkuntza tailerra izan genuen. Partaide ugari bildu ziren tailerrean eta oso lan txukunak egin zituzten.

EMAKUME MIGRANTEEKIN LANKETA (urtarrilak 29)

Zazpi emakume migrante etorri ziren saiora eta oso emankorra izan zen. Lanketan jarraitzeko asmoa dagoenez, emango da aurre-rago horren berri. (argazkian arrazismoaren kontrako formazioa)

Ekintza horiez gain, asteazkenetako kale ekintzak izan ditugu. Haurren irudien erabilpena dela-eta ez dugu argazkirik, baina hauek dira egin dituzten ekintzak:

Just Dance (azaroak 27): Dantzan eta kantuan, primeran pasa zuten herriko txiki zein ez hain txikiek.

Jolasak (abendua 4): Hainbat jolas ezagutzeko eta jolasteko aukera izan zuten bertaratu ziren haurrek.

Plastilina tailerra (abendua 18): Buztin tailerra egiteko asmoa zegoen, eta buztinaren egoera ona ez zenez plastinarenatik ordezkatu zuten: kontua irudimena lantzea zen eta aitzakirik ez zen izan!

Ostiraletan ere, gaztelekuan elkartu eta ekintza ugari egin dira:

Karta jolas txapelketa (azaroak 22): Ohikoez gain, badira karta jolas ugari eta horiek ezagutzeko aukera izan zuten gazteek.

Jolasak eta "Bi arnas" dokumentala (Azaroak 29): Mahai jolasetan ibili ziren, eta gero Bi arnas dokumentala ikusi zuten.

Bingo musikatua (abendua 13) : Ederki ibili ziren abestiak asmatzen, giro paregabea egon ziren gaztelekura gerturatu ziren gazteak.

Gabonak direla-eta pare bat ekintza berezi ere egin dira:

Txokolate jana eta gaileta tailerra (abendua 20): Haur kopuru ikaragarria animatu zen, eta gurasoen laguntzarekin primeran moldatu ziren. Negu giroko ekintza egokia: txokolotea eta gailetak.

Gazta tarta tailerra (abendua 27): Asmoa afari mexikarra egitea bazen ere, lagun talde handia bilduko ez zela aurreikusi, eta gazta tarta tailerra egin zuten gazteen eskaeraz.

BELARRITAKO TAILERRA (otsailak 6 eta 28)

Belarritako dotoreak egin dituzte tailerrean izena emandakoak. Emaren laguntzarekin teknika ezberdinak ikasi eta praktikatu dituzte.



liburu gomendioa

**HETERO****Uxue Alberdi**

Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: unean bertan egin eta esan ez ziren horiez.


Aitak —odolekoak, kulturalak, politikoak—, maitaleak, adiskideak ageri dira kontakizunotan. Tesi zuzendari, editore eta militante “idealizatuak”; hiru lagunek gorputz bakar bat frenorik gabe aldapan behera; Zarautz, Elgoibar, Kuba —“desira aplastante bat”—; whatsapp bidezko literatura lezioak; ezin bete diren promesak urpean eta naufragatzen utzitako bizi-puskak; hiltzen jarraitzen duen aita bat, alargun igerilari bat. Tarteko jendearen presentzia aztoragarria eta hizkuntzaren dardara bizia.

Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik bere hirugarren narrazio liburuan.

Maiatzaren 21ean, 18:30ean, kulturgunean, Uxue Alberdi izango dugu “Hetero” liburuaren aurkezten. Saioa, Maialen Aki-zuk gidatuko du.

Alma Negra

Ibon Martin

**Maitasun kapitala**

Karmele Jaio

**Geure gorputzean eta etxean burujabe**

Aiora Urbietta

**Victoria**
Paloma Sánchez**Euritan**
Idoia Rodriguez**Las que no duermen**

Dolores Redondo

**L'Arratien taberna**

Toti Martinez de Lezea

**Mikroipuinak**

Idoia Torrealdai

**Pleibak**
Miren
Amuriza**Cuando llega la noche**
Mikel Santiago**Errezeta****Inauterietako errezetak****OSAGIAIAK**

(2 pertsonarentzat)

Castagnole kauserak:

Irina, 330 g
Gurina, 75 g
Azukrea, 60 g
Arrautzak, 2
Anisa, 50 g
Legamia hautsa, 10 g
Limoi baten azalaren birrindura
Gatza
Banilla lurrina, pixka bat
Azukrea, galdarraztatzeko
Frijitzeko olio

Chantilly-a:

Esne gaina, 200 g
Banilla, adar erdia
Azukrea koilarakada bat
Esne hautsa,
koilarakadatxo bat

Txokolate saltsa:

Esne-gaina, 200 g
Ura, 50 g
Azukrea, 75 g
Kakao hautsa, 15 g
Txokolate beltza, 100 g
Menta orriak

Torrada gozoak:

Ogia, 6 xerra
Esne gaina, 200 g
Esnea, 500 g
Kanela, adar bat
Limoia
Kanela hautsa, pixka bat
Oliba olio
Azukrea, 150 g
Arrautza





Castagnole kauserak:

Ontzi batean arrautzak nahastu eta bota gurin ur-tua, anisa, limoi azalaren birrindura, banila lurrina eta gazta. Beste ontzi batean, irina eta legamia hautsa bota eta beste ontzira gehitu. Ondo nahastu, eta eskuekin 10-15 gramoko ore bolak egin. Olio berotzen jarri eta bolak frijitu. Paperean xukatu, eta azukre eta kanela hautsarekin egingindako nahasketatik pasa.

Torrada gozoak:

Esnea eta esne-gaina kanela adarrarekin eta 120 gramo azukrerekin berotzen jarri. Ogi xerren gainera bota nahasketa eta ondo hezetzen utzi. Zartagin batean, olio berotzen jarri limoi azal batzuekin. Torradak xukatu, arrautza irabiatutik pasa eta oliotan bi aldeetatik frijitu. Paperean xukatu eta azukre eta kanela hautsetik pasa.

Chantili

Ontzi batean osagai guztiak sartu eta hagaxkarekin harrotu. Hotzean gorde.

Txokolate saltsa:

Eltze batean esne-gaina, ura, kakao hautsa eta azukrea irakiten jarri. Ondoren txokolate beltzari bota eta hotzean gorde.

Bukaera...

Erretilu batean torradak eta kauserak jarri. Ondoan chantilly-a eta txokolate saltsa. Mentarekin apaindu.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

Beldurra daukat.
Bost langile hilik gertatu dira.
Gaurkoan lehendakaria Madrilera joan da.

EUSKARA TXUKUNA

Beldur naiz.
Bost langile hil dira.
Gaur lehendakaria Madrilera joan da.

AI ENE!!!!

Kuriositateak

XVII. mendearen hasieran, hamar nafarretik zortzik euskaraz hitz egiten zuten eta horietatik bostek ez zuten erdara ulertzen. Horregatik, esan genezake, nahiz hitz egiten zen hizkuntza bakarra ez izan, euskara zela Nafarroan, Pirinioen bi aldeetan, gehien hitz egiten zen hizkuntza. Garai hartan, Behe Nafarroan eta Nafarroa Garaian euskal hiztun guztien ia erdia bizi zen.

Gaia gehiago jorratu nahi izanez gero, Peio Monteano Sorbet idazleak *Mintzoa* argialetxearen bidez, argitaraturiko "Del euskera al castellano" liburuan duzue informazio gehiago.



agenda

MARTXOA

- 7: Zirko tailerra, 16:30-18:00 plaza.
8: Emakumeen eguna bazkaria, 14:00 Arbelaitz.
8: Ztandap, 17:30 Arbelaitz.
12: Euskaraldiko batzordea, 19:00 Arama.
21: Sorkuntza tailerra: Bihondakinen tailerra, 18:00-20:30 Kultur-gunean.
22: Gipuzkoako mus finala (eguarditik aurrera).
27: Maskulinitate berriak, 17:30 Kultur-gunean.
28: Sorkuntza tailerra: Bihondakinen tailerra, 18:00-20:30 Kultugu-nean.

APIRILA

- 2: Maite Franko ipuin kontaketa, 18:00 Haur txokoa.
3-10: Kirol astea.
3: "Baltoro oinez eta hegan" hitzaldi ikusentz, 18:30 Kultur-gunea.
5: Mendi irteera, 10:00 plaza.
9: Euskaraldiko batzordea, 19:15 Alzaga.
11: Kirol Egokitu saioa, 16:00-18:00 frontoia.
29: Maskulinitate berriak, 17:30 Kultur-gunean.

MAIATZA

- 3-5: Urkiko festak.
7: Euskaraldiko batzordea, 19:00 Itsasondo.
10-11: Urkiko asteburua.
15-25: Euskaraldia.
21: "Hetero", Uxue Alberdi+ Maialen Akizu, 18:30 Kultur-gunea.
22: Maskulinitate berriak, 17:30 Kultur-gunean.
16: Tio Teronen semeak "Haurreskolari", 20:00 plazan.
30: Ekoizle azoka eta arropa azoka.

EKAINA

- 6: Bertso saioa: Aner Peritz, Nerea Elustondo, Beñat Gaztelumen-di, Oihana Iguaran. Gai jartzailea, Maitane Legarreta. 18:30ean frontoian.
18: Harrera eguna.
19: Maskulinitate berriak, 17:30 Kultur-gunean.
20: Eskolako jaia, "Arlote bat" pailazo emanaldia.
Garagardo azoka eta Alarma morea kontzertua, 19:00 Plazan.
23: San Juanak, 19:00 plazan.



telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarte	943 881339
Ibalur	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Altxaburua Itsasondo
Amaia Ugalde
Danel Etxeberria
Erkuden Mendizabal
Iñaki Aizpuru
Iturririkiki guraso elkarte
Jone Iturrioz
Haur eskola
Hezitzaileak
Hitzar komunitatea
Maite Lasa
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkipe eskola
Urkipe eskolako haurrak

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA